

# HITZ ETA PITZ

Ikas-maila: DBHko 1. MAILA

## Edukien gaineko aipamena:

Euskaratik eta euskaraz sortzeko ikasgaia izango da, bai ahoz eta bai idatziz: adibidez, podcastak, aldizkariak, webak... Komunikazioa hobetzeko estrategiak landuko dira; ahozko zein idatzizko hainbat testu mota ulertu eta, batez ere, sortzeko estrategiak.

## Metodologia:

Ikas-egoeretan oinarritutako metodologia; ebaluazio bakoitzean ikas-egoera batean edo batzuetan oinarritutako proiektuak landuko dira. Ikasgai praktikoa da, ikasleek eginez ikasiko dituzte edukiak. Talde lanak eta ahozkotetasunak garrantzia handia izango dute, irratia-estudioa erabiliko da sortutakoak erakusteko, adibidez.

## Ebaluazio-irizpideak

### Proposatutako ikas-egoeran oinarritutako lanak

Ebaluazio bakoitzean ikas-egoera batean edo batzuetan oinarrituta egindako proiektuak baloratuko dira. Ikasturtea gainditzeko, lanak **nahitaez** eman behar dira irakasleak zehaztutako epean.

Ebaluazio bakoitzaren ondoren, suspenditutako lanak berreskuratu ahal izango dira.

### Ariketak, jarrera, materiala...

Klaseko lana, etxeko lana, euskaraz aritzea, materiala ekartzea, jarrera eta parte hartzea kontuan hartuko dira.

## Modalitatearekin eta geroko ikasketekin duen erlazioa edota hautazkoarekin erlazionaturiko informazio esanguratsua.

Hizkuntza komunikaziorako ezinbesteko tresna den heinean, ikasgai guztietan funtsezkoa da testuak ulertu eta sortzea. Irakasgai honen helburua ikasleak horretan trebatzea da: ikaslea hizkuntzaren erabileran trebatzen da testuen ulermen eta ekoizpenaren bitartez. Bestalde, edozein arlotarako garrantzitsua den sormena ere lantzen da.

# HITZ ETA PITZ

Nivel educativo: 1. DBH

## **Mención de los contenidos**

Será una asignatura para trabajar desde el euskera y en euskera, tanto por escrito como oralmente: por ejemplo, podcasts, revistas, webs... Se trabajarán estrategias para mejorar la comunicación, estrategias para comprender y, sobre todo, producir diferentes tipos de textos orales y escritos.

## **Metodología**

Metodología basada en situaciones de aprendizaje. En cada evaluación se trabajará en un proyecto basado en una o varias situaciones de aprendizaje. Es una asignatura práctica, los contenidos se aprenden practicándolos. El trabajo en grupo y la oralidad tendrán gran importancia, se utilizará el estudio de radio para enseñar lo creado, por ejemplo.

## **Criterios de evaluación**

### **Trabajos basados en situaciones de aprendizaje**

En cada evaluación se realizará un proyecto basado en situaciones de aprendizaje. La superación de la evaluación y del curso requerirá necesariamente la entrega de los trabajos en el plazo que determine el profesorado.

Tras cada evaluación se podrán recuperar los trabajos suspendidos

### **Ejercicios, comportamiento, material...**

Se tendrán en cuenta el trabajo en clase, el trabajo en casa, el uso del euskera, el material, el comportamiento y la participación.

## **Relación que tiene con estudios posteriores y/o alguna información que pueda ser destacable sobre la optativa.**

La comprensión y producción de textos es fundamental en todas las materias, como herramienta imprescindible para la comunicación lingüística. El objetivo de esta asignatura es formar al alumnado en el uso de la lengua a través de la comprensión y producción de textos. Por otro lado, se trabaja la creatividad que es importante para cualquier área.